

San Bizente Ferrer, domingotarra  
(1350-1419)

San Bizente Ferrer «izurritearen eta epidemien aurkako babesletzat emana da, mirariak eginez, izurriteen, epidemien eta gaixotasun kutsakorren aurkakotzat». Aldi honetan bizi dugun pandemiaren krisialdi larritik irteteko laguntza eskatzen ahal diogu, gaixo guztien alde eta Aitari erregutu diezaion hiltzen ari direnen alde.

Bizentek izurritzearen aurka eratu zuen otoitza:

«Kristo garaileak, Kristo erregeak, Kristo agintariak, Kristok, babestu gaitzala gaitz ororen kontra. Jesus Nazaretarra, Juduen Erregea, erruki zaitez gutaz. Gurutze Santuaren seinaleagatik eta Andre Maria gure ama aintzatsuaren merezimenduengatik eta Fabian, Sebastian, Nikasio, Anastasia, Martin, Roke, Kosme eta Damian zeure Martiri eta Aitorleengatik, libra gaitzazu, Jesu Kristo gure Jainkoa, geure etsaietatik eta izurrite orotatik eta gaitz kutsakorretatik, eta bat-bateko eta betiko heriotzatik. Jainko Santua, Jainko Indartsua, Jainko hilezkor eta errukitsua, gure Salbatzailea, erruki zaitez gutaz. Eta haragi egin zinena Espiritu Santuaz Andre Mariagan, eta gizon egin zinena»